

## KANALAK

Gure zerbitzua ahalik eta pertsona gehienek ezagutzea gustatuko litzaiguke, horrela herrietara joaterakoan pertsona askok hartuko lukete parte gure ekintzetan eta plastikoaren erabilera hobetu egingo litzateke. Hori burutzeko hainbat kanal propio erabiliko ditugu non gure enpresa iragarriko dugun.

Gure kanal garrantzitsuena sortuko dugun webgunea izango da. Gure enpresa aditzera emateko modu egoki eta sinpleena iruditzen zaigu. Bertan hainbat atal egongo dira:

- 1.- Nor gara? Gure taldearen aurkezpen txiki bat, zerbitzuaren arrazoiak eta helburuak azalduko dira.
- 2.- Plangintza Udaletxe desberdinek kontratatzen gaituzten heinean bertan azalduko den egutegia betetzen joango da.
- 3.- Ekintzak Gure zerbitzua zertan datzan azalduko da (zer ekintza egingo diren).
- 4.- Argazkiak Ekintzak egin bitartean argazkiak aterako ditugu, bertako pertsonen baimena baldin badugu, hemen txertatzeko.
- 5.- Kontaktua Gure lokalaren helbidea, Saioak edukiko duen telefono mugikorraren zenbakia, sortuko dugun posta-elektronikoa eta Instagram-eko perfila agertuko da.

Aipatu bezala Instagram-eko perfil bat sortuko dugu. Izan ere, gaur egun sare-sozialak dira informazio iturri garrantzitsuena, eta gure erabiltzaile gazteengana hurbiltzeko era egokiena eta eraginkorrena direla iruditzen zaigu. Bertan webgunean baino aktiboago egongo gara. Modu dinamiko batean inkestak egingo ditugu, ideiak berriak jasotzeko gehien bat. Ekintzen argazkiak ere igoko ditugu, webgunean bezala, baina aukeraketa bat egingo dugu. Hau guztiaz gain, inguruneari laguntzeko aholkuak igoko ditugu; horrela egingo den lanketa da 5 eguneko ekintzetan geratuko, eta beraien errutina hobetu egingo da.

Bi kanal hauetaz gain, gure enpresari publizitatea egiteko "Gaztea" irratiara joan gara eta bertan gure enpresari buruzko saio bat egingo dugu.



Azkenik, herri bakoitzean kartelak ezarriko ditugu, bertan herri horretako data azalduko da. Horretaz gain, ikastetxeei gure informazioa bidaliko diegu eta haiek beraien ikasleei azalduko diete gure enpresa.

Bezeroei dagokienez, gure azpi helburuetako bat euskararen erabilera sustatzea da, horregatik komunikatzeko hizkuntza nagusia euskara izango da. Baina, bezeroen batek esaten badigu ez dakiela edo ez dela oso eroso sentitzen, ez dugu arazorik edukiko berarekin erdarez edota ingeleraz hitz egiteko. Izan ere, gu bostok hiru hizkuntza horiek menderatzen ditugu.

Udalekin egingo ditugun bilerei dagokienez, guk lokal bat edukiko dugu. Beraz, beraiek nahiago duten lekuan bilduko gara (gure lokalean edo beraien enpresan), haiek gustura egoteko eta horrela erosoagoa izateko lana egiterako garaian.

